

«Jende askok ezin du esan 20 urterekin liburu bat argitaratu duenik. Oso eskertua nago»

Mikel Iraola 2018-06-12 10:58 KULTURA **LARRAUL**

Maddi Etxeberria larrauldarrak bere lehen nobela argitaratu du: *Zein usain dute oroitzapenek?*

Gonbidapenak

Ikusi al dituzu Guggenheimeko erakusketa berriak?



Larraul / Kultura

Gaueko behaketa egingo dute
Larraulen ekainaren 22an

«Jende askok ezin du esan 20
urterekin liburu bat argitaratu duenik.
Oso eskertua nago»

Maitasun gutunak Ekairi



|  [Ikusi handiago](#) |  [Argazki originala](#)

Maddi Etxeberria literaturzalea da txikitatik. Orduak eta orduak eman ditu irakurtzen, baita zenbait ipuin eta eskutitz idazten ere. Martin Ugalde literatur saria, Aiztondoko Gutun Lehiaketa, edo Urruzunotarrak gehituz sariketa irabazitakoa da, besteak beste. «Literatura beti izan da nire babesleku; errazagoa izan zait gauza batzuk paperean azaltzea, hitz eginez baino», dio Larraulen bizi den andoaindar gazteak.

Bada, denbora honetan idatzitako testu horiek «argitaratzeko beharra sentitu», eta bere lehen eleberria argitaratu du Larraulen bizi den andoaindar gazteak: *Zein usain dute oroitzapenek?*. Atzo aurkeztu zuten, Donostian.

20 urte dituela iritsi da bere lehen nobela: «Jende askok ezin du esan adin honekin liburu bat argitaratu duenik. Oso eskertua nago, Erein argitaletxeak nire proiektuan sinetsi duelako, eta hilabete gutxian nire lana ordenagailuan egotetik argitaratuta egotea pasa delako. Konfiantza osoa eman didate. Oraindik ez dut

Estitxu Eizagirre: «Sormena lore hauskorra da»

Ostiralean banatuko dituzte Aiztondoko XI. Gutun Lehiaketako sariak

Eskualdeko bi haur saritu dituzte Elkarren Ilustrazio eta Ipuin Lehiaketan

Ibilbide oparo baten hasiera

Astlehenean aro berri bati ekingo dio Larraulgo liburutegiak

«Eszenatokian lekua hartzean bizitzan lekua hartzen ikasten duzu»

Lorrazak taldeak eszenatokiak utziko ditu

Ikusienak

1



Asteasuko San Pedro jaiak: egitaraua

2



T3T eta T2T 2018: Helmugan, alaitasun aurpegiak

3



Kuadrilla eguna

sinesten liburua argitaratu dudarik», aitortu du.

Eskutitzekin osatutako nobela da, estilo horretan «eroso» sentitzen baita Etxeberria. 25 urteko neska bat da nobelako protagonista nagusia, Gaia. Irakaslea da, eta Erresuma Batura joaten da lanera. Gaiak Heleni bidalitako eskutitzek osatzen dute kontakizuna, maitasuna, gaixotasuna edota heriotza bezalako gaiak azaleratuz. Honela dio sinopsiak:

Lagun zaharrak, lagun berriak, amodio zaharrak, amodio berriak... Bizitza berri bati ekin nahi dio Gaiak, baina ez du atzean utzi duen altxorra ahaztu nahi. Astean bat, bi, hiru... eskutitzen bidez kontaktzen dio lagunari bere bizitza berria; lagun berriak, Euskal Herriarekin gordetzen duen harremana, Anderrekin duen harremana... Urte betean zehar idatzitako eskutitz hauek Gaiaren bizitza kontaktzen dute sinpleki; harremanetan oinarritutako bizitza, sentipenak, bizipenak...

Idazketa garaian, sekula pasa gabeko zerbait pasa zaiola onartu du Etxeberriak: «Irakurtzean, gertatu izan zait luzatzea, gelditu nahi ez izatea, nobela nola amaituko den jakin nahi izatea. Baina idazterakoan ez zait hori inoiz pasa. Egunean tarte bat hartu behar nuen idazteko, behar hori sentitzen nuelako, baina protagonistari zer geratuko zitzaion hasieratik jakin gabe. Idatzi ahala, idatzitakoa gorde, eta gerora eman diot forma». Hala ere, idazketa prozesuan «gozatu» egin du Etxeberriak, eta espero dut idaztean gozatu dudan bezain beste gozatzea irakurleak.

Iñaki Aldekoa Erein argitaletxeko editoreak, berriz, eleberriaren sinesgarritasuna eta kalitatea azpimarratu ditu: «Lehen pertsonan idatzia dago, eta horrek badu indar bat, gaztetasunarekin lotura estu bat. Eta ahots hori sinesgarri bihurtzea da erronka handienetako bat, eta niri sinesgarri egin zait».

Aurkezpena, osorik, bideoan:

4



Tradizio paperetan bildutako gozokia

5



gehiago»

«Komunikatzen dugu, hitzen bidez esaten duguna baino askoz

6



T3T eta T2T 2018: azken ostikoak Erroizpen

▲ Publizitatea

"Zein usain dute oroitzapenek?" liburuaren aurkezpen ekitaldia. Maddi Etxeberria Otaegi from Erein argitaletxea on Vimeo.

Zabaldu artikulua:  

Erantzun

Erantzuteko, izena emanda egon behar duzu. **Sartu komunitatera!**

Erabiltzaile izena

Pasahitza

Sartu

»» [Alta eman edo pasahitza berreskuratu](#)

Twitter-ekin

Facebook-ekin

Jarraitu
ataria.eus



Tolosaldeko Komunikazio Taldea S.M.
San Esteban, 20 Tolosa 20400
Telefonoa: 943 65 56 95
ataria@ataria.eus

Publizitatea: publi@ataria.eus / 661 678 818

Agerkari honek [Tokikom](#) Plataforma erabiltzen du

Codesyntaxek garatua



LAGUNTZAILEAK:

Gipuzkoako
Foru Aldundia



ORAIN
GIPUZKOA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA